7.PRAKTIKA:
Atalak: 4.2 eta 4.3
(2014ko azaroaren 5)

1.- Suposatu kontsumitzaile batek Taloak eta sagardoak erosi nahi dituela. Bere errenta 50€ da eta dena gastatuko du bi ondasun horiek erosten. Taloen prezioa 10€ eta sagardoarena 5€ dira.

a.-Nola banatu behar duen bere errenta bi ondasun horiek erosterakoan bere baliagarritasuna maximizatzeko? Lortzen duen baliagarritasunak zenbat balio du?

Ondoko taulak ondasun bakoitzaren baliagarritasun totalak jasotzen ditu:

Talo–unitateak Qt	Baliagarritasun Totala (UTt)	sagardo-unitateak Qs	Baliagarritasun Totala (UTs)
0	0	0	0
1	80	1	45
2	150	2	85
3	210	3	120
4	260	4	150
5	300	5	175
6	330	6	195

b.-Aukera Optimoak bete behar dituen bi baldintzak zein diren seinaleztatu eta egin duzun ariketan ere betetzen direla egiaztatu.

c.-Taloaren prezioa 10 eurotik 5 eurora jaitsi ezkero, zein izango da Aukera Optimo berria beste aldagai guztiak berdin mantentzen badira?

d.-Azaldu zein izan den lehenbiziko Aukera Optimotik bigarren Aukera Optimora eman den ibilbidea eta nola errekuperatu den Oreka Berria.

e.-Osatu Kontsumitzailearen Taloaren Eskari Kurba, taula eta grafikoa eginez.

2.-Kontsumitzaile batek bi ondasun kontsumitzen ditu: X (kamisetak) eta Y (ogitartekoak). Kontsumitzaile honen errenta, denboraldi konkretu jakin batetarako, 1000 €-koa; Px = 20 € eta Py = 5 € direlarik.

a.-Kalkulatu kontsumitzaile honentzat posibleak diren bi ondasunen arteko konbinazio guztiak, hau da bere balantze lerroa.

b.-Kontsumitzailearen errenta gehitu egin da, orain R = 2000 € koa da. Balantze lerro berria kalkulatu.

c.-Kamisetak garestitu egin dira, orain Px = 25 € da. Balantze lerro berria kalkulatu.

d.-Ogitartekoen prezioa gutxitu egin da, orain Py = 4 € da. Balantze lerro berria kalkulatu.

3.-Zer gertatuko da Balantze Lerroan bi ondasunen prezioak aldi berean bikoizten badira, aurrekontu berdina mantenduz? Eta bi ondasunen prezioak aldi berean erdira jaisten badira aurrekontua mantenduz?

4.-Zer gertatuko da Balantze Lerroan bi ondasunen prezioak eta aurrekontua aldi berean bikoizten badira?

5.-Ondoko baliogarritasun funtzioak kontsumitzaile baten lehentasunak deskribatzen dituela suposatzen dugu: U= 2xy.
a.-Kalkulatu eta grafikoki erakutsi indiferentzia-kurba baliogarritasun maila U= 120 denean.
b.-Kalkulatu Ordezkapen Erlazio Marjinala (OEM) x = 2 denean. Emaitzak zer esan nahi duen azaldu.